

Donostia, 2016ko azaroaren 4a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA ALTZAKO KIROLDEGIAREN INGURUAN DETEKTATUTAKO AMIANTO KUTSADURA DELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Altzako kiroldegiaren inguruan detektatutako amianto kutsadura dela eta, OSOKO BILKURAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Duela aste batzuk, udal gobernuak jakinarazi zigun amianto arrastoak aurkitu dituztela Altzako kiroldegi berriko kanpoko igerilekua eta aparkalekua egitea aurreikusten zen inguruan, hots, 1963tik 1981era Fibrocementos Vascos SA enpresa egon zen eremuan.

Aurkikuntzaren berri eman ziguten bileran jakinarazi ziguten, halaber, airea aztertu behar zutela haren egoera ezagutzeko; emaitza negatiboa izan da, antza. Nolanahi ere, eta alarma soziala eragiteko inongo asmorik gabe, iruditzen zaigu inguruan hainbeste denboraz amiantoa egoteak zer ondorio dituen jakiteko beharrezkoak diren jarduketak bideratu behar dituztela gaian eskumena duten erakundeek.

Ez dugu ahantzi behar amiantoak pleurako mesoteliomak eta birikako kartzinomak eragin ditzakeela harekin kontaktuan egon eta urte asko geroago. Berez, zenbait ikerketen arabera, lanari egotz dakizkiokeen bi minbizitatik bat material horren eraginpean egon izanaren ondorio da Europan. Estatuan, 1975 eta 2010 bitarte, 6.037 lagun hil ziren Espainian pleurako minbiziaren ondorioz; horietatik, % 66 gizonezkoak ziren, eta % 34, emakumezkoak, eta kalkulatu da hildakoak eragiten jarraituko duela 2040 arte.

Amianto kutsaduraren ondorio larriei buruzko ezagutza horiek aintzat hartuta, eta Altzan aurkitutako kutsaduraren ebidentziaren aurrean, uste dugu Eusko Jaurlaritzak neurriak hartu behar dituela jakiteko zein den pleurako mesoteliomen eta birikako kartzinomen ondorioz hildakoen intzidentzia Alza-Herrera inguruan, zein aldameneko beste toki batzuetan. Era berean, martxan jarri zenetik kiroldegian lan egin dutenek ondoriorik jasan duten jakiteko betebeharra du Udalak, eta gaitza adierazi gabe urteak igaro daitezkeenez, aldian-aldian mediku azterketak egitekoa pertsona horiei guztiei.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin dezala ikerketa bat pleurako mesoteliomak eta birrikako kartzinomek, zein amiantoarekin lotutako beste gaitz batzuek, Donostiako Altza eta Herreran eta ondoan diren Pasaia eta Erreterian duten intzidentziaz.
2. Donostiako Udalak Osalani eta Lan Ikuskaritzari eskatzen die egin ditzatela behar diren gestioak Altzako kiroldegian, martxan jarri zenetik, lanean aritu diren pertsona guztiak amiantoaren eraginpean egondako langileen zerrendan sartzeko, eta egin diezazkietela aldizkako azterketa medikoak haien osasuna kontrolatzeko.
3. Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenbailehen jakinaraz dezala kutsadura kentzeko zer jarduketa egingo diren amiantoa aurkitu den Altzako inguru horretan.

Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.